

**ERDI AROA**

**LEHEN HEZKUNTZA**

**6. MAILA**

**Carmen Marcos eta Carmen Pueyo**

---

2011ko ekainean berrikusia

## ERDI AROKO IPUINA

**Sekuentziak arlo hauek hartzen ditu barnean:** Hizkuntza, Ingurunea

**Gaia:** Erdi Aroa

**Maila:** Lehen Hezkuntzako 6. maila

**Saio kopurua:** 8

### Proposamenaren testuingurua:

Erdi Aroko gizartea 3. zikloko ikasleentzat oso mundu erakargarria da. Erdi Aroan kokatzen diren modako filmak (*El señor de los anillos*, *Harry Potter*, *Eragon*, etab.) haien gustukoak dira; hortik abiatuta, ipuin klasikoak erabiliko ditugu Erdi Aroa ezagutzeko.

### Oinarrizko gaitasun hauek landuko dira:

- Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna
- Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

### Helburu didaktikoak:

- Erdi Aroa denboran kokatzea.
- Erdi Aroko gizartearen eta ekonomiaren ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- Testu informatiboak erabiliz, behar diren datuak lortzea.
- Ipuinaren atalak ezagutzea eta bereiztea.
- Testu narratiboa antolatzea.

### **Edukiak:**

- Ipuinaren ezaugarriak eta helburuak
- Ipuinaren zatiak
- Ortografia eta zuzentasuna
- Erdi Aroaren kronologia eta kokapena
- Erdi Aroko gizartearen antolamendua
- Erdi Aroko ekonomia eta bizimodua
- Informazioaren trataera

### **Jardueren sekuentzia:**

1. jarduera: Zer dakiten azaldu, eta proiektu honen helburua eta eman beharreko urratsak aurkeztu.
2. jarduera: Testu informatiboa irakurri.
3. jarduera: Galdetegi bati erantzun, eta gizarte mailen piramidea osatu.
4. jarduera: Erdi Aroaren eta *Katu botaduna* ipuinaren arteko loturak bilatu.
5. jarduera: Ipuinaren atalak ezagutu.
6. jarduera: Testu bat antolatzeko informazioa kontuan izanik, ipuinaren zirriborroa egin.
7. jarduera: Nork bere lana zuzendu
8. jarduera: Ipuina idatzi WORD programa erabiliz.

### **Ebaluatzeko irizpideak eta adierazleak:**

Jardueretan:

1. Ea gai den Erdi Aroa denboran kokatzeko. (3. jarduera)
2. Ea gai den Erdi Aroko gizartearen banaketa deskribatzeko. (2. eta 3. jarduera)
3. Ea gai den Erdi Aroko gizartearen eta ekonomiaren ezaugarriak zehazteko. (3. eta 4. jarduera)
4. Ea gai den ipuin baten atalak zeintzuk diren esateko. (5. jarduera)
5. Ea gai den testu narratibo bat antolatzeko. (6. jarduera)
6. Ea gai den bere lana aztertzeke eta ebaluatzeko, eta egin beharreko aldaketak egiteko. (7. jarduera)
7. Ea gai den bere lana txukuntasunez eta zuzentasunez aurkezteko. (8. jarduera)

## JARDUEREN GARAPENA

### 1. JARDUERA

Badakizue noiz sortu zen zuen herria? Noiz sortu ziren Euskadiko hiri eta herri garrantzitsuenak?

Herriak ez dira denak garai edota mende berekoak, baina Euskadiko herri asko Erdi Aroan sortu ziren.

Gaur egun, hainbat lekutan, Erdi Aroko jaiak edota azokak ospatzen dira. Izan zarete inoiz horrelako batean?

Nolakoak dira jantziak? Denak berdintsu janzten dira, ala badago desberdintasunik haien artean? Zeintzuk dira haien ogibideak? Zer tresna erabiltzen dituzte? Oso makina konplexuak ala tresna sinpleak? Ohitura bitxiren bat ikusi duzue?

Gai honetan, Erdi Aroaren ezaugarri batzuk landuko ditugu. Ikasitakoa ikaskideei kontatuko diezue. Nola? Erdi Aroan egiten zen bezalaxe: ipuinen bidez ; ipuin-sortzaile eta kontalari bihurtuko zarete.

Horretarako, Erdi Aroko ezaugarriak ondo ikasteaz gain, ipuinak nola kontatzen diren ere ikasiko duzue. Ez da zaila izango. Urratsez urrats joanda, istorio magiko bat edukiko duzue eskuen artean.

## 2. JARDUERA.

Irakurri honako testu hau:

### KRONOLOGIA

Ziur aski ez dakizue noiz hasi eta noiz amaitu zen Erdi Aroa; ba., hori ikusteko, hona hemen aro guztien kronologia.

AROA	HASIERA	BUKAERA
HISTORIAURREA	Gizadia agertzearekin batera	Kristo aurreko (K.a.) 4000 urtea
ANTZINAROA	K.a. 4000 urtea	Kristo ondorengo (K.o.) V. mendea
ERDI AROA	K.o. V. mendea	K.o. XV. mendea
ARO MODERNOA	K.o. XV. mendea	K.o. XVIII. mendea
ARO GARAIKIDEA	K.o. XVIII. mendea	Gaurko eguna

Laukian ikusten denez, Erdi Aroa oso garai luzea izan zen, 10 mende iraun zuen. Guk aro horren aspektu batzuk baino ez ditugu aztertuko: gizartearen antolamendua eta ekonomia.

Egungo gizartearen antolamenduak ez dauka zerikusirik Erdi Aroko gizartearen antolamenduekin. Gaur egungo gizartea diruaren arabera banatuta dago, baina, ondasunak izan zein ez izan, guztiok eskubide berberak ditugu. Erdi Aroan, ordea, ez zen horrela izaten.

Gizartea hiru estamentutan zegoen antolatuta:

1. estamentua: **Nobleak**. Gerlariak ziren eta gazteluetan bizi ziren. Nobleen artean **erregea** zen boteretsuena. Nobleak lurraren jabeak ziren, eta hainbat pribilegio zituzten. Nekazariei askotariko zergak kobratzen zizkieten: errota erabiltzeagatik, zubia zeharkatzeagatik etab. Nobleek zerbitzu militarren truke lortu zituzten lurak. Nobleen lurak bi motatakoak ziren: *erreserbak eta mansoak*. *Erreserba* jaunak bere onurarako ustiatzen zuen lurra zen eta nekazariak lantzen zuten janariaren eta etxearen truke. *Mansoa*, oster, lur zati txikia zen eta familia bat bizitzeko egokituta zegoen. Bertan bizi zirenak maizterrak ziren, hau da, errenta ordaindu behar zioten – normalean, generotan– jaunari. Jaunak, bestalde, epaile lanak egiten zituzten beren

lurraldeetan.

2. estamentua: **Kleroa** (fraideak, mojak, apaizak eta, guztien gaineratik, Aita Santua). Erdi Aroan erlijioak bizitzako alderdi guztiak baldintzatzen zituen. Eliza Katolikoa oso boteretsua zen. Fraideak eta mojak komentuetan bizi ziren, eta, nobleek bezala, lurrak eta pribilegioak izaten zituzten. Lurrak donazioak ziren gehienetan, besteen arima salbatzeko egindako otoitzengatik emanak. Gainera, uztaren eta lan guztien hamarrena jasotzen zuten.

3. estamentua: **Nekazariak**. Herrixketan bizi ziren, eta nobleen edo ordena erlijiosoen lurrak lantzen zituzten. Oso bizimodu latza zuten: jateko gutxi zuten, garbitasun faltak gaixotasun ugari eragiten zituen, eta, ondorioz, heriotza-tasa oso altua zen, eta bizi itzaropena baxua (40 urte).

Beheko koadroan Erdi Aroko gizartearen hiru estamentuak daude irudikatuta. Ea gai zaireten bertan azaltzen den pertsonaia bakoitza dagokion estamentuan kokatzeko.






### 3. JARDUERA

Adierazi esaldi hauetan egia (E) ala gezurra (G) esaten den:

<ul style="list-style-type: none"><li>• Historiako aroen ordena hau da: Historiaurrea, Erdi Aroa, Aro Modernoa, Antzinaroa, Aro Garaikidea.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Erregea noblea zen.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Nobleen oinarrizko lanbidea gerra zen.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Nekazarien lur zatia erreserba deitzen zen.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Kleroak botere gutxi zuen.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Nekazariak luraren jabe ziren.</li></ul>	
<ul style="list-style-type: none"><li>• Nobleek zergak kobratzen zituzten.</li></ul>	

Orain arte ikusitakoa kontuan hartuta, bete ezazu gizarte feudalaren piramidea.



#### 4. JARDUERA

Irakurri *Katu botaduna* izeneko ipuina, eta bilatu bertan Erdi Aroarekin loturaren bat duten pertsonaiak, lanbideak eta bizimoduak.

Ondoren, idatzi koadro honetan Erdi Aroarekin aurkitu dituzuen loturak.

PERTSONAIAK	
OGIBIDEAK	
BIZILEKUAK	
BESTE BATZUK	

## KATU BOTADUNA

Bazen behin errotari zahar bat, eta hil zenean semeei utzi zizkien bere ondasunak. Zaharrenari errotari ogibidea utzi zion; erdikoari, astoa; eta gazteenari, katu bat.

—Hau zorte kaskarra! —esan zuen gazteak. —Eta zer egingo dut katu batekin?

—Zuk uste baino gehiago! —erantzun zion katuak. —Lortu bota batzuk eta zakua, eta ikusiko duzu zertarako naizen gai —esan zion katu maltzurak.

Mutil gazteak, harrituta, eskatutakoa egin zuen.

Katuak botak jantzi zituen, zakua hartu, belarrez bete eta untxiren bat harrapatzeko zain geratu zen.

Gero, erregearen gaztelura joan zen eta untxiak eman zizkion, esanez:

—Gorentasun hori, nagusiak, Karabasko markesak, bidali nau zuri opari hau ekartzeko.

—O, bai jatorra! Eman eskerrak Karabasko markesari bere opariagatik erantzun zion erregeak.

Beste batean, katua gaztelura joan zen hiru eperrekin, esanez:

—Errege, nagusiak, Karabasko markesak, opari hau bidaltzen dizu.

Erregea, oso mokofina baitzen, pozarren zegoen markes misterioitsuaren opariek.

Ordura arte ez zuen inoiz markes haren berririk izan.

Katuak jakin zuen arratsalde hartan erregea paseatzera irtengo zela bere alabarekin ea bere lurraren uztak emankorrek ziren ikusteko. Erregearen lurrean erreka bat zegoen, eta uretan sartzeko esan zion katuak bere jabe gazteari.

Katuak erregearen karroza hurbiltzen ari zela ikustean, oihuka hasi zen:

—Lagundu, lagundu!

Erregeak zaldiak geldiarazteko agindu zion gurtzainari.

—Zer gertatzen zaizu? —galdetu zion erregeak.

Botadun katuak erantzun zion bere nagusiari, Karabasko markesari, lapur batzuek arropak lapurtu zizkiotela errekan bainatzen ari zela. Erregeak jantzi dotore bat ekarrarazi zuen errekan biluzik zegoen markes gaztearentzat.

Erregeak markes gaztea bere gazteluan afaltzera gonbidatu zuen. Bitartean, botadun katua ogro baten gaztelura abiatu zen. Bidean aurkitu zituen artzainei esan zien:

—Erregeak artalde hauek zeinenak diren galdetean, esaiozue Karabas jaunarenak direla —agindu zien katuak artzainei.

Gauza bera esan zien ogroaren lurralde zabal eta emankorretan uzta biltzen ari ziren nekazariei.

—Erregeak uzta hauek zeinenak diren galdetzean, esaiozue Karabas jaunarenak zirela —agindu zien katuak nekazariei.

Ogroaren gaztelura iritsi zenean, galdetu zien soldaduei non zegoen nagusia. Soldaduek erantzun zioten areto nagusian zegoela afaria antolatzen.

—Arratsalde on, ogro agurgarri hori. Zure gaztelura etortzera ausartu naiz zu ezagutzeko gogo handia nuelako eta jakiteko ea egia diren zutaz esaten dituzten zera miragarri guztiak —esan zion Botadun Katuak.

Ogroak, jakin-minez, galdetu zion:

—Eta zer kontatzen dute, bada, nitaz?

Botadun Katuak esan zuen:

—Esaten dute gai zarela elefantea edo hartza bezain animalia handia bihurtzeko; egia da hori?

Eta hori entzutean, ogroa lehoi beldurgarria bihurtu zen .

—Ausartuko al zinateke xagu txiki bat bihurtzen? —jarraitu zuen katuak zirika.

Ogroak, kostata, baina xagu txiki bat bihurtzea lortu zuen, eta katuak jan egin zuen.

Katua gero erregearen gaztelura joan, eta esan zien erregeari, printzesari eta bere nagusiarri morroiek prest zutela afaria Karabaseko gazteluan.

Erregeak, gaztelura zihoala, galdetu zien nekazariei nor zen landa haien jabea, eta haiek erantzun zioten jabea Karabasko markesa zela.

Gaztelura iritsi eta luxuzko altzariak, koadroak eta lanparak ikusi zituenean, bere alabarekin ezkontzeko baimena eman zion, printze izendatu ondoren. Ezkontza alaitasun handiz ospatu zen eta ordutik aurrera alai eta zoriontsu bizi izan ziren.

Lau katu eta bost txito, ipuin hau bukatu eta kitto!

*Susaeta* argitaletxea

(Moldatua)

## 5. JARDUERA

Eskema honetan ikusiko duzue ipuin baten atalak zeintzuk diren.

### IPUINAREN ATALAK

#### 1. IZENBURUA

#### 2. SARRERA:

NOIZ -----

*Behin batean...*

*Bazen behin...*

*Orain dela asko...*

NON -----

Lekuak: deskribapena

NOR -----

Pertsonaiak: deskribapena

#### 3. GERTAERAK: Arazoak, ekintzak, abenturak.

*Halako batean...*

*Orduan...*

*Handik gutxira...*

#### 4. BUKAERA: Ondorioa, amaiera.

*Ordutik aurrera...*

*Azkenik...*

*Azkenean...*

“Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan, eta atera dadila  
Etxebarriko plazan.”

Eskema horretaz baliatuta, esan zeintzuk diren *Katu Botaduna* ipuinaren atalak.

## 6. JARDUERA

### NOLA ANTOLATU TESTU BAT?

Testu bat idaztean kontuan eduki beharrekoak:

1. Koherentea izan behar du.
2. Argia, irakurtzen erraza, izan behar du.
3. Irakurleak edo entzuleak gustura hartzeko modukoa izan behar du.

Zer egin dezakegu hori guztia lortzeko? Erantzun galdera hauei, eta argiago ikusiko duzue:

- Zertaz idatzi nahi dut?
- Ezagutzen dut gaia?
- Norentzat da?
- Zeintzuk izango dira ideia nagusiak?

Aurreko galderari erantzun badiezue, beste gauza hauek ere argiago izango dituzue:

- Ez dakigunaz ezin dezakegu idatzi; beraz, ikertu, datuak bilatu eta jaso.
- Pentsamenduak hitz bihurtzeko ordenatu egin behar dira; horretarako, oso lagungarria izan ohi da izenburuak erabiltzea.
- Bururatzen zaizkizuen ideiak idatzi, eta garrantziaren arabera ordenatu.

Orain, idazteari ekingo diogu. Lehenengo, idatziko duzuen ipuinaren zirriborro bat egingo duzue. Hasi eskema hau betetzen:

IKASLEAREN IZENA

.....

1.- IZENBURUA

2.- HASIERA: NOIZ GERTATZEN DA ISTORIA?, NON?, ZEINTZUK DIRA PERTSONAIAK?

3.- GERTAERAK: ARAZOAK, EKINTZAK, ABENTURAK...

4.- BUKAERA

## 7. JARDUERA

Behin zirriborroa eginda, birpasatzeko unea heldu zaigu.

Galdetegiari erantzun. Emaizen arabera jakingo duzu zer aldatu, zer kendu, zer sartu... Ipuina osatzerakoan, komentatu irakaslearekin zure zalantzak eta zer aldatu nahi duzun.

Ipuinaren atal guztiak agertzen dira?	BAI	EZ
Atal bakoitzari dagozkion ezaugarriak errespetatu dituzu ?	BAI	EZ
Badago loturarik atalen artean?	BAI	EZ
Lokailurik erabili duzu?	BAI	EZ
Istoriaa ulertzen da?	BAI	EZ
Hitzak errepikatzen dira?	BAI	EZ
Sinonimorik erabili duzu?	BAI	EZ
Zuzen lotu dituzu subjektuak beren aditzekin?	BAI	EZ
Ondo lotu dituzu osagarri zuzenak eta aditzak?	BAI	EZ
Pertsonaiek hitz egiterakoan, jarri duzu gidoia?	BAI	EZ
Erabili duzu hiztegia ortografia zalantzak argitzeko?	BAI	EZ



## 8. JARDUERA

Orain, informatika-gelan, ipuina idatziko duzue WORD programa erabiliz.

Testuak ezaugarri hauek eduki behar ditu:

- ✓ Letra mota: Comic Sans
- ✓ Tamaina: 14
- ✓ Portada: Ipuinaren izenburua, egilea eta data.
- ✓ Marrazkiak: portadan eta ipuinean.

## 9. JARDUERA.

Nahi baduzue, aukera izango duzue beste geletako umei zuek sortutako ipuinak kontatzeko.